URRIAK 4 - AZAROAK 4

# iparra galdu gabe!

V JORNADAS
SOBRE IPARRALDE





# Introducción

*El Instituto Cultural Vasco de Iparralde, EKE, lleva más de 10 años colaborando con el Ayuntamiento de Getxo, y de esta colaboración han surgido multitud de iniciativas, por ejemplo, las jornadas sobre Iparralde IPARRA GALDU GABE. El objetivo de estas jornadas que se organizan cada dos años, no es otro que el de acercar Iparralde a Getxo. La edición de este año tiene como clave la PALABRA. La exposición fotográfica HITZ ENEA nos propone un viaje a través de los nombres de las casas de Iparralde y de Getxo. El documental OROITZEN NAIZ concede el turno de la palabra a tres famosos dantzaris de Iparralde ya entrados en años. La película EMAK BAKIA tiene como punto de partida el nombre de una casa. Man Ray artista dadaísta estadounidense realizó, en 1926, Emak Bakia, un cine-poema innovador. Rodó su trabajo en una casa situada en los alrededores de Biarritz, en una casa que, al parecer, se llamaba Emak Bakia (déjame en paz).*

*Y es, precisamente, Man Ray el protagonista del cartel anunciador de la edición de este año de IPARRA GALDU GABE. Tomando como base uno de sus trabajos más famosos "Observatory time- The lovers", hemos abierto los labios que aparecen en la imagen, para simbolizar que IPARRA GALDU GABE nos habla, comunica. Además, hemos modificado el horizonte para que confraternicen Aixerrota de Getxo y las rocas de la playa de Hendaia llamadas "Las Gemelas".*

***¡Ahora, TÚ TIENES LA PALABRA!***



# Sarrera

Euskal Kultur Erakundeak 10 urte baino gehiago daramatza harremanetan Getxoko Udalarekin eta harreman horretatik sortu dira IPARRA GALDU GABE bezalako programak. Bi urtez behin egiten den IPARRA GALDU GABE programak Ipar Euskal Herria Getxon ezagutzera emateko jarduerak antolatzea du helburu. Aurtengo programak HITZA du ardatz: HITZ ENEA argazki erakusketak Iparraldeko eta Getxoko etxeen izenekin bidaiatxoa egitea proposatzen digu. OROITZEN NAIZ dokumentalak Iparraldeko adineko hiru dantzari ospetsuri eman die hitza, dantzaren bidez mintzatu daitezen. EMAK BAKIA filmak ere hitz bat, etxe baten izena du abiapuntua. Man Ray artista dadaista estatubatuarrak Emak Bakia zine-poema egin zuen 1926an, lan berritzailea. Antza, Miarritze inguruko etxe batean filmatu zuen bere lana, EMAK BAKIA izeneko etxe batean.

Eta Man Ray bihurtu dugu, hain zuzen, aurtengo IPARRA GALDU GABE programako irudiaren protagonista. Bere lan ospetsuenetako bat, "Observatory time- The lovers", hartu dugu oinarri, baina ezpainak zabalik jarri dizkiogu IPARRA GALDU GABEk mintzatu, hitz egiten duela irudikatzeko. Horrezaz gain, zeruertza aldatu dugu Getxoko Aixerrotak eta Hendaiako hondartzako "Bikiak" haitzek bat egin dezaten.

**Orain, ZUREA DA HITZA!**



**Urriak 4-7 Octubre**

**Algortako Geltokia plaza**

Urriak 4 eta 5:
17:30-20:30

Urriak 6:
11:30-14.30
eta 17:30-20:30

Urriak 7:
11:30-14:30

**Urriak 11-14 Octubre**

**Areetako Geltokia plaza**

Urriak 11:
17:30-20:30

Urriak 13:
11:30-14.30
eta 17:30-20:30

Urriak 12 eta 14:
11:30-14:30

Doan / Gratis






# "HITZ-ENEA"

## ERAKUSKETA

Nor bizi izan zen Azkaineko Zapata Churienea izeneko etxean? Nondik dator Neguriko etxe baten aurrealdean dagoen Senditzuegi izena? Kolore berekoak dira Urruñako Etche berdea eta Algortako Etxe Berdea? Erantzunik ez duten galdera hauek azaleratu nahi ditu erakusketa honek eta horretarako, Miarritzetik Getxora, Senperetik Algortara doan bidaia proposatzen digu, Malzapatariena, Itxilitxila, Zientoetxe edo Singalantenea izena duten etxeak bisitatuz. Antzinatik, euskal kulturan, etxeek eta etxeen izenek mapa zaharrenak ahoz egiteko balio izan dute, oraindik paperezko kartografia egon ere ez zegoenean. Lanbideak (Arotzena), izengoitiak (Tatoena), toponimiak (Beresalde) etxe bati izena jartzeko beti balio izan duten adibideetako batzuk, gaur egun, hobeto edo okerrago, abstraktuagoa den toponimia batekin ordezkatzen ari dira: desioak (Gure Nahia), ametsak (Ametchetan), haizea (Haizatua), izarrak (Goizeko Izarra). Edozelan ere, gure etxeen izenen garrantziak berebizikoa izaten jarraitzen du.

Erakusketa Oskar Alegria (Iruñea, 1973) kazetari, argazkilari eta zinemagileak egin eta Getxoko Udalak eta Iparraldeko Euskal Kultur Erakundeak babestu dute.

## *EXPOSICIÓN*

# *"HITZ-ENEA"*

*¿Quien habitó esa casa de Azkaine llamada Zapata Churienea? ¿De dónde viene el nombre Senditzuegi que presenta una fachada en Neguri? ¿Son del mismo color Etche berdea de Urruña y Etxe Berdea de Algorta?... Estas son algunas de las preguntas sin respuesta que trata de lanzar, no de resolver, esta exposición, a través de un viaje desde Biarritz a Getxo, de Senpere a Algorta visitando lugares llamados Malzapatariena, Itxilitxila, Zientoetxe o Singalantenea. En la cultura vasca, las casas y sus nombres han servido desde antaño para el trazado oral de los mapas más antiguos, cuando la cartografía de papel no existía. Oficios (Arotzena), apodos (Tatoena), toponimia (Beresalde) han servido como referentes tradicionales a la hora de bautizar una vivienda, hoy sustituidos con mayor o menor acierto por otros que responden a una toponimia más abstracta como los deseos (Gure Nahia), los sueños (Ametchetan) el viento (Haizatua) o las estrellas (Goizeko Izarra). Sea como sea, la riqueza e importancia de los nombres de nuestras casas sigue siendo excepcional.*

*Exposición realizada por el periodista, fotógrafo y cineasta Oskar Alegria (Iruña 1973) que cuenta con el patrocinio del Ayuntamiento de Getxo y de Euskal Kultur Erakundea de Iparralde.*

# "HITZ-ENEA"

## BERTSO SAIOA

HITZ-ENEA izeneko erakusketa gaitzat hartuta, bertso desafioa Iparraldeko eta Getxoko bertsolarien artean. Ahozkotasuna bi alderditatik ikusita: batetik, ahoz aho gorde ditugun etxeen izenak eta bestetik, ahozkotasunaren artea gorengo mailara eraman duen artea, bertsoa. Zeurea da HITZA!

**AMETS ARZALLUS (Hendaia) eta SUSTRAI COLINA (Urruña)**

**JONE URIA (Getxo) eta PERU VIDAL (Getxo)**

**Gai-jartzailea: UNAI ELORRIAGA**

# *"HITZ-ENEA"*

## *DESAFÍO ENTRE BERTSOLARIS*

*Tomando como eje central el contenido de la exposición "HITZ-ENEA", se medirán dos bertsolaris de Iparralde contra otros dos de Getxo. La palabra vista desde dos de sus vertientes: por una parte, los nombres de las casas que se han guardado de generación en generación, y por otra parte, los bertsos, arte oral que ha llevado a la palabra a la máxima expresión.*

***AMETS ARZALLUS (Hendaia) y SUSTRAI COLINA (Urruña)***

***JONE URIA (Getxo) y PERU VIDAL (Getxo)***

***Gai-jartzailea: UNAI ELORRIAGA***

**Urriak 5 Octubre**

**Algortako Geltokia plaza**

20:00

Eguraldi txarra egingo balu/
En caso de mal tiempo:
Villamonteko Kultur Etxea

**ALBE**ren eskutik

Doan / Gratis


AMETS ARZALLUS


SUSTRAI COLINA


JONE URIA


PERU VIDAL



**Urriak 7 Octubre**

**Andres Isasi Musika Eskola**

18:00

**Gonbidapenak/ Invitaciones:**

Urriaren 5era arte, Villamonteko eta Romoko Kultur Etxeetan. Geldituko balitz, egun berean, ordu erdi bat lehenago, txarteldegian.

Hasta el 5 de octubre, en las aulas de Cultura de Villamonte y Romo. Si quedaran, el mismo día, media hora antes, en taquilla.









# "OROITZEN NAIZ"

## Dantzaria zahartzen denean

## FILMAREN AURKEZPENA

**Jean Nesprias** (83 urte), **Philippe Oyhamburu** (89 urte) eta **Koldo Zabala** (74 urte), hiru dantzari bikain, adinekoak jada. Hirurek bizia dantzari eskaini diote, eta buru eta bihotz ekin diote, oraindik ere haien barnean bizirik irauen "su sakratu" batek bultzaturik. Euskal Kultur Erakundeak eta "Malandain Ballets Biarritz/Ballets T" baletak hirurak elkartu ditu koreografia baten inguruan. "Boi Sakré" ikus-entzunezkoen ekoizpen lantegiak koreografiaren prestakuntza lan guztiak segitu ditu, baita sorkuntza bera filmatu ere.

Getxon filma ikusteko aukera izanen dugu, baina, filmaz gain, gure artean izanen ditugu, bai filmaren egileak eta, nola ez, protagonista nagusiak: **Mizel Théret**, koreografia sortu duena eta **Jean Nesprias**, **Philippe Oyhamburu** eta erran gabe doa…getxotarra den **Koldo Zabala** dantzari handia! Emozioa eta edertasuna izanen dira nagusi.

## *PRESENTACIÓN DEL DOCUMENTAL*

# "OROITZEN NAIZ"

## *Cuando el dantzari envejece*

*__Jean Nesprias__ (83 años), __Philippe Oyhamburu__ (89 años) y __Koldo Zabala__ (74 años), tres dantzaris excelentes, mayores ya. Los tres se han dedicado en cuerpo y alma a la danza, empujados por un "fuego sagrado" que aún perdura en sus cuerpos. La Asociación Cultural Vasca, EKE, y el ballet "Malandain Ballets Biarritz/Ballets T" han conseguido reunir a los tres bailarines en torno a una coreografía. El taller de audiovisuales "Boi Sakré" ha filmado los preparativos de la coreografía así como el espectáculo.*

*En Getxo tendremos oportunidad de ver el documental, pero además, junto con los autores del documental estarán entre nosotros los verdaderos protagonistas: __Mizel Théret__, autor de la coreografía y los dantzaris __Jean Nesprias__, __Philippe Oyhamburu__ y cómo no…el getxotarra de nacimiento __Koldo Zabala__. ¡Belleza y emoción a raudales!*

# “BIDASO: BIGA SO!”

## HITZALDI UMORETSUA KIKE AMONARRIZ ETA PANTZO HIRIGARAI BIKOTEAREN ESKUTIK

Zergatik hitz egiten dute horren ozen gipuzkoarrek? Zergatik ari dira baxenabartarrak dragatzen, arabarrak ligatzen ari diren bitartean? Berdinak ote dira Zuberoako nesken egunetako eta Bizkaiko zapatuetako gauak? Zenbateko aldea dago Getxotik Azkainera, 150 km ala 150 argi-urte? Ba al dugu elkarren berri? Ustez, dakizkigunak ez al dira topikoak edo klixeak? Edo benetan horrelakoak gara?

Bi so. Bi begirada, Bidasoaren bi aldeetatik bi aldeetara. Bidasoaren izenak berak ez ote du Euskal Herriaren bitasuna nabarmentzen hitz hasierako BI horrekin? Edo bat gara Bidasoa guztien gainetik? Baina, zerk batzen gaitu, eta zerk bereizten?

Galdera horien eta beste askoren erantzuna **Pantzo Hirigarai** kazetariaren eta **Kike Amonarriz** telebista aurkezlearen eskutik. Umorea nagusi,  barre egiteko aukera paregabea!

# “BIDASO: BIGA SO!”

## *CONFERENCIA DIVERTIDA A CARGO DE KIKE AMONARRIZ Y PANTZO HIRIGARAI*

*¿Por qué hablan tan alto los y las guipuzcoanas?  ¿Por qué los y las bajonavarras están “dragando” mientras los y las alavesas están “ligando”? ¿Son iguales los “días de  chicas” de Zuberoa y “zapatuetako gauak” de Bizkaia? ¿Qué distancia hay entre Getxo y Azkaine, 150 kilómetros o 150 años luz?  ¿Realmente nos conocemos, o lo que creemos saber no son más que tópicos? ¿Realmente somos así?*

*Solo dos miradas, dos miradas desde y a ambos lados del Bidasoa. ¿El propio nombre del Bidasoa no refleja la dualidad del País Vasco, con ese BI (dos) del principio?¿Qué es los que nos une y qué lo que nos separa?*

*Las respuestas a estas y muchas más preguntas a cargo del periodista Pantzo Hirigarai y del presentador de televisión* ***Kike Amonarriz****. ¡Inmejorable oportunidad para reír un buen rato!*

**Urriak 17 Octubre**

**TORRENE erakusketa aretoa**

20:00

Doan / Gratis

KIKE AMONARRIZ



PANTZO HIRIGARAI



**Urriak 18 Octubre**
**TORRENE erakusketa aretoa**
20:00
Doan / Gratis







# “EMAK BAKIA”
## FILMAREN ESTREINALDIA GETXON

**Oskar Alegria** (Iruña, 1973)

Man Ray artista dadaista estatubatuarrak Emak Bakia 16 minutuko zinepoema egin zuen 1926an, lan esperimental eta berritzailea. Miarritzen inguruko etxe batean filmatu zuen, antza denez EMAK BAKIA izeneko etxe batean. Arrasto horren atzetik, etxe horren bila abiatu da Oskar Alegria. Emak Bakia Baita dokumentala da emaitza. Egileak Man Rayren espiritua berreskuratzen saiatu da, hau da, zine libertarioa, interferentziarik gabea eta arauetatik aske.

Filma “foot-movie” erritmoan filmatua dago, pauso erritmoan. Filma zoriak eskainitako “eureka” ezberdinez osatuta dago, batzuk hezur-haragizkoak. Bidean topatutako jendeari eginiko elkarrizketak daude, eta horiek dira filma geldirik geratzen deneko une bakarrak.

## *ESTRENO EN GETXO DEL DOCUMENTAL*
# *“EMAK BAKIA”*

***Oskar Alegria*** *(Iruña, 1973)*

*Man Ray artista dadaísta estadounidense realizó, en 1926, Emak Bakia, un cine-poema de 16 minutos de duración, trabajo experimental e innovador. Rodó su trabajo en una casa situada en los alrededores de Biarritz, en una casa que, al parecer, se llamaba Emak Bakia (déjame en paz). Siguiendo esa pista y en busca de la casa ha trabajado Oskar Alegria. El resultado es el documental Emak Bakia Baita, en el que el autor ha intentado recuperar el espíritu que guió a Man Ray, es decir, cine libertario, sin interferencias y no atado a norma alguna.*

*El documental, filmado a ritmo de paso, a ritmo de “foot-movie”, está compuesto por “eurekas”, algunos de ellos de carne y hueso, originados por el azar. El documental incluye entrevistas realizadas a la gente que el autor se ha encontrado en el camino, entrevistas que son los únicos momentos en los que se detiene la película.*

Man Ray.
Self-Portrait with Half Beard, 1943





**Urriak 23 Octubre**
**ALDAI patronatua**
20:00

**EGIZU**ren eskutik
Doan / Gratis



Argazkia: Maddi Txutxuelo




## UR APALATEGI IDAZLEAREN
# Literatur mintzaldia

EGIZU elkartearen Irakurzaleen Txokoak antolatzen dituen literatur mintzaldietan, urrian, UR APALATEGIren (Paris, 1972) solasaldiarekin gozatzeko aukera izango dugu. Solasaldian, 2011n, Euskadi Literatura Saria jaso zuen **FIKZIOAREN IZTERRAK** liburuaz egingo du berba. Ur Apalategiren liburua osatzen duten zazpi ipuinek ederto erakusten dituzte euskal literaturaren munduan dauden giza harremanen ezkutuko kontuak, eta baita gure nortasunaren biziraupenerako beste funtsezko atal batzuetan daudenak ere. Narrazio errealista honetan azpimarratzekoa da egileak erabiltzen duen erregistro piloa: satira eta parodiarekin hasi, ironia zorrotza eta umore garratzarekin jarraitu, eta kritika soziala, samurtasuna eta dramatismoarekin amaitu.

# *Tertulia literaria*
## *A CARGO DEL ESCRITOR UR APALATEGI*

*Dentro de las tertulias literarias organizadas por la asociación EGIZU, en octubre tendremos la oportunidad de disfrutar con la charla ofrecida por el escritor de Iparralde UR APALATEGI (Paris 1972). El escritor nos hablará sobre su libro **FIKZIOAREN IZTERRAK**, obra que recibió el premio EUSKADI SARIA de literatura en 2011. De la obra de Ur Apalategi, destacar que los siete cuentos muestran con destreza los entresijos de las relaciones humanas en el mundo de la literatura vasca, así como en otros ámbitos fundamentales para la supervivencia de nuestra identidad. Se trata de una narración realista en la que destaca la multitud de registros que aparecen en el libro, desde la sátira y la parodia, hasta la ironía aguda, el humor duro, pasando por la crítica social, la ternura y el dramatismo.*

# "LODRIKOKO"
## HAURRENTZAKO IKUSKIZUNA

Iparraldeko ELIRALE konpainiak haur txikiei zuzendutako ikuskizuna dakarkigu. Dantzari bat, antzezle bat eta musikari bat. Musika, dantza eta hitzak "Lodikroko" liburuaren inguruan. Intimista den espazio batean haurtzaroaren munduko lemak zeharkatuz dena da sonoritate, erritmo eta irri joko, haurren gozamenerako. Liburua zabaldu eta bizitzen hasten denean… orriak itzuli eta… gorputza, dantza eta haurtzaroaren espazioak irekitzen dira.

# *"LODRIKOKO"*
## *ESPECTÁCULO INFANTIL*

*ELIRALE, compañía de teatro de Iparralde, nos trae una obra dirigida a los y las más pequeñas de la casa. Un dantzari, un actor y un músico ponen la música, la danza y la letra a esta obra que gira en torno al libro "Lodikroko". En un espacio intimista destaca la sonoridad, el ritmo, la risa, todo ello para disfrute de los y las niñas. Cuando abrimos y el libro empieza a vivir… y a medida que pasamos las páginas… aparecen la danza, los movimientos corporales y los espacios de la niñez.*

**Azaroak 4 Noviembre,**
**Villamonteko Kultur Etxea**

11:30 eta 13:00

**SENDI**ren eskutik

**Adina/ Edad:**
2-6 urte.

**Iraupena/ Duración:**
30 minutu.

**Ume-kopurua/ N.º de niños-as:** 50 gehienez.

**Izena emateko epea/ Inscripciones:**
urriaren 29ra arte/ Hasta el 29 de octubre.

Euskaraz izan arren, pertsona guztiek ikus dezakete.
Aunque sea en euskera, lo pueden ver todos.

SENDI: 685 73 29 63 (Lander)
www.blogari.net/sendi
sendigetxo@yahoo.com



URRIAK 13- AZAROAK 14

# iparra galdu gabe!

V JORNADAS
SOBRE IPARRALDE